



## LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

### 1. Egitasmoaren izenburua:

I. ALDIA: ALDAY EGOITZA HANDITZEA

### 2. Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2022

### 3. Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☒ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

### 4. Proiektuaren helburua:

Proiektuaren helburua egoitza handitzea da, edukiera handiagoa emateko, zehazki, 7 plaza gehiago. Halaber, beste zerbitzu batzuk ere handitu dira, hala nola egoitzako egoiliar ez diren pertsonentzako jarduerak, etxez etxeko otordu-zerbitzuak, egoitzako egoiliar ez diren pertsonentzako jantoki-zerbitzua edo laguntza-produktuen mailegua, besteak beste.

### 5. Inbertsio totala: 1.113.638,04 euro

### 6. Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 200.000,00 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

### 7. Onuraduna:

FUNDACION ALDAY

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

### 8. Lankide edo entitate partehartzaileak:

## **9. Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:**

Aiara, Araba

## **10. Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):**

Alday Fundazioa ongintzazko erakundea da, eta 1898tik gaur egunera arte jardun du Aiarako eta inguruko biztanleen alde, irabazi-asmorik gabe. Ospitalea, eskola, zahar-egoitza, janari-banaketa, etxebizitza komunitarioa, eguneko arretarako landa-eremuko zentroa eta, 2018tik aurrera, egoitza dira fundazioak Arespalditzan eta inguruan eman dituen eta egun ematen dituen zerbitzuak.

2022ko ekitaldian, proiektu berriari ekiteko arrazoia honako hau izan da: arreta integraleko eredua hobetzea, egitasmoak helburu dituen pertsonak erdigunean jarrita, egoitza abian jarri zenetik, hiru urte baino gehiago igaro ondoren, betiere ia 90 urteko eskarmentuaren bermean oinarrituta. Dena dela, pandemiaren ondorik, proiektua berriz aztertu eta izurritearen osteko garaietara eta egungo arauetara egokitu dugu, bidenabar, fundazioaren jarduera zabaldu dugula.

Proiektuaren xede nagusia egoitza handitzea da, edukiera handiagoz hornitzeko. Azken urteotan jaso ditugun eskaerak aintzat hartuta, esan dezakegu eskaera horiei aurre egin ahalko diegula egoitza zabaltzen den unetik bertatik. Alday egoitzak 38 plaza eskaintzen zituen lehen, eta gaur egun, 45 plaza.

Gainera, handitze-lanaren ondorioz, zerbitzu gehiago eskainiko dira, hala nola: egoitzako egoiliar ez diren pertsonentzako jarduerak, etxez etxeko otordu-zerbitzuak, egoitzako egoiliar ez diren pertsonentzako jantoki-zerbitzua edo laguntza-produktuen mailegua, besteak beste.

## **11. Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):**

Alday Fundazioaren filosofia Aiarako herritarren bizi-kalitatea hobetzeari lotuta egon da beti, eta bere proiektuak erabiliz, gizarte-berrikuntza eta komunitatearen ongizatea babestu eta sustatu nahi ditu.

Baldintza horri oraturik, fundazioaren asmoa da Alday adinekoen egoitza, hemendik bost urtera, egoitza erabat sendotzea eta egungo kudeaketa-ereduaren garapenean sakontzea, hain zuzen ere, eredu horri esker, urgazpen-kalitate handiko erreferentziatzko zentroa bilakatu baita, eta ospe handikoa da eskualdean nahiz lurralde osoan.

Fundazioak ezarritako betekizun eta kalitate-estandarretan oinarrituta, helburu nagusi hauek bete nahi ditu erabiltzaileentzat:

- Narriadura psikofisikoa murriztea eta egoiliarren ongizate psikologikoa areagotzea.

- Morbimortalitatea murriztea. Egoiliarrei ahalik eta bizimodu autonomoena izaten laguntzea.
- Akutuen ospitaleko ospitaleratzeen eta horien ondorioen kopurua murriztea, adimen-maila eta/edo gizarte-maila eta funtzionala ezin hobea lortuz eta estimulazio kognitiboa eta sentoriala sustatzen duten zereginak ezarritik.
- Medikamentuen kontsumo arrazionalizatua sustatzea.

Gainera, plaza gehiago hitzartu nahi dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin, eta eguneko arretarako landa-eremuko zentroaren zerbitzuari eutsi.

Gure adinekoen zaintzaren eremuaren bilakaeraren zioz, beharbada, beste arreta-eredu bat garatu beharko dugu eta litekeena da egonaldi laburrak eskaini behar izatea etxean bizi ohi den mendeko adineko pertsona bati.

Horrela, adinekoen eta beraien familien beharrei erantzuteaz gain, egoitzei buruz ahoz aho dabilen estereotipoa ere hautsiko litzateke; bada, pertsona ugarik behin betiko egonlekutzat hartzen dute egoitza, hortik seluka irtengo ez delakoan.

Aurrekoaz gain, beste helburu garrantzitsu bat dugu senide zaintzaileak zaintzea eta atsedean hartzeko aukera ematea, haiei ere zerbitzuak eskaini dakizkiekeelako. Hori dela eta, bost urteren buruan, proiektu honetan aurreikusitako helburua lortzeaz gain, esparruko ekintzak jorratzen jarraitu nahi dugu, gure adinekoen eta haien familien bizi-kalitatearen erreferente gisa, betiere zerbitzuaren bikaintasunerantz aurrera eginez.

Eraikina handitzeaz batera, zerbitzuen eskaintza ere handitu egingo da, eta adinekoen egoitza-eremuari lotutako zerbitzu berritzaileak eskainiko dira; hau da, gure adinekoen mugak apaltzeko hainbat jarduera eskainiko ditugu, egoiliarrek zentroan antolatzen diren jardueretan eta funtzionamendu orokorrean ahalik eta gehien parte har dezaten sustatuta.

## **12. Eskualdeko garapen-maila, proiektuaren ekarria aintzat hartuta.**

Proiektuak eskualdea garatzen lagunduko du, honako alderdi hauetan:

- Erabiltzaileak onuradun izango dira, zerbitzuaren kalitatea hobetuko delako eta zerbitzuen eskaintza handiagoa izango delako.
- Gaur egungo langileak ere onuradunak izango dira, beraz, eskualdeko enplegua, zerbitzua emateko lan-baldintzak hobetu direlako. Gaur egun, Alday egoitzan aritzen diren langileen % 80 Aiarako eskualdean eta inguruetan bizi eta erroldatuta daude.
- Lanpostu berriak sortuko dira eta, beraz, eskualdeko enplegua haziko da, erabiltzaileen kopurua handituko delako (38 plazatik 45era igaroko da eskaintza).
- Zeharkako langileak: lehenik eta behin, handitze-obraen enpresa esleipenduna Aiaraldeko enpresa delako, eta, bigarrenik, zerbitzuen eskaera handituko delako, erabiltzaileen kopurua eta egoitzaren azalera bera handituko direla, hau da, hornitzaile, laguntzaile eta abar gehiago beharko direlako.
- Arespalditzako Udala eta Arabako Foru Aldundia, ekipamendu handiagoa dakarkielako udalerrinari eta lurraldeari.



- Ingurumena: handitze-lana eginda, eraikinak eraginkorra izaten jarraituko duelako.

Azpimarratzekoa da, halaber, eskualdean izango duen eragin ekonomikoa, bereziki, Aiaraldean, hurbileko hornitzaileak kontratatuko direlako eta nahikoa lagun egoiliarak bisitatzen etorriko direlako.